# KIROLAK ERAIKINA

*Eskualde mailako Kirol eta Kultur Ekipamendua Arrigorriagan*

Ikaslea HENAR MERINO REFOYO // Tutorea IÑAKI BEGIRISTAIN MITXELENA




# AURKIBIDEA

## *AURREKARIAK*

### *Kokapena*

*Bilbo Handia //01*
*Arrigorriaga Udalerria //02*
*Arrigorriaga Herria //03*

*Analisia*

*Herriaren bilakaera //04*
*Herriaren azterketa //05*

*Proeiktu ingurua*

*Martiartu auzoa //06*
*Auzoaren topografia //07*
*Auzoaren hirigintza analisia //08*

*Kirolak Eraikina*

*Eraikinaren aurrekariak //09*
*Eraikinaren argazkiak //10*

*PROEIKTUA*

*Azalpenak*

*Proiektuaren azalpena inguruagatik //11*
*Estrategia egiturala //12*
*Proiektuaren azalpena erikinagatik //13*
*Auzo mailako interbentzioa //14*

*Planoak*

*Xehetasunak*

*Irudiak*

# BILBO HANDIA
//01




Mugek artikulatzen dute Bizkaiako inguru osoa, mendi haranek, ibaien arroek, eta gizakiok sortutako komunikazio sare mota ezberdinek. Azpiegiturek eskualde zona gehienak lotzen dituzte, Bilbao hiria konexio puntu garrantzitsuena izanik. Mugikortasun errazak herri asko lo hiri bihurtzea eragiten du.

Limite hauek presentzia handia hartzen dute Arrigorriaga herrian, zentroa trena, Nerbioi ibaia eta errepide ezberdinek ixten duten gune estuan zehar hazten baita. Herri zentrotik oso gertu dauden auzoak muga gogor hauengatik isolatuak geratzen dira. Konexio puntuak ahulak dira eta bakartzera bultzatzen dute.

Loturak hobetzeko helburuarekin Martiartu auzoan kokatzen da INTERBENTZIO PROIEKTUA, non auzoa herriko enparantzatik 5 minutura egonda, alde batera utzitako gunea den.

E: 1/75 000

# UDALERRIA
//02




## ARRIGORRIAGA UDALERRIA

Arrigorriaga Bizkaian kokatzen den herria da, Bilbo hirigunetik oso gertu. Mendiz inguratutako haran batean zehar hedatzen da, Nerbioi ibaiertzearen ezkerraldean. Naturak presentzia handia hartzen du herriaren paisaian eta landaguneko kultura oraindik bizirauten du. Inguruaren topografiak, ibaiak eta azpiegiturek herria zatitzen dute, inoiz bat egiten ez duen puzzle bat bezala. Piezak lotzen dituzten elementuak erabilera zerbitziala baina ez erosoa dute, toki batzuetan konexio zona ilunak sortuz haien izaera bakartuagatik.

# HERRI ESKALA
//03

ARRIGORRIAGA

43° 12′ 28″ N, 2° 53′ 10″ W
*Azalera* 16,36 $km^2$
*Garaiera* 59 m
*Distantzia* 9,5 km Bilbora
*Biztanleria* 12.029 biztanle (2016)
*Dentsitatea* 735,27 biztanle/$km^2$



- Trena
- AP–68 Autopista
- BI–625 Errepidea
- Nerbioi ibaia

E: 1/4000

# HERRIAREN BILAKAERA
//04




## ARRIGORRIAGA HERRIA 1965–2018

*Proiektua kokatuko den gunea ulertzeko historian zehar bizitako egoera ezberdinak ezagutu behar dira.*
*Kirolak Eraikina 1970 hamarkada hasieran proposatu eta eraikitzen da. Inguru natural, ibaitik gertu eta BI–625 errrepide berriak ekarriko zituen berrikuntzen ILUSIOarekin. 1978. urtean AP–68 autobidea eraikitzen da, paisaia sikintzen duen ZUBI erraldoi bat eraikiz. 1983. urtean Arrigorriagak bizitako hondamendirik garrantzitsuena gertatu zen, UHOLDEAK, Bilbo inguru osoan hondamenak eragin zuena. Gertakisun hau eraikin asko kaltetu zuen baina sotoa izan ezik gainontzekoa erabiltzen jarraitu zen. Hamar urte inguru ostean eraikinak bere ateak itxi egin zituen, JABETZA PRIBATUA zenez gaur egun arte erabili gabe egon da. Herriak berea bezala ulertzen du eraikina, bere erabilera publikogatik eta bere berreskurapena eskatzen du.*

# HERRIAREN AZTERKETA
## //05




Herriaren formak trenbide eta ibaiaren artean sortzen den espazioari erantzuten dio. Hegoaldetik iparralderako ardatz batean hazten da.
Bi kalek espazioa antolatzen dute, Paseo Urgoiti kalea eta Severo Ochoa kalea.
Ardatz nagusi hauek erdialdeko eraikinak besarkatzen dituzte non hiru enparantza nagusiak dauden.
Hegoaldeko plazak herriko eginkisun garrantzitsuenak jasotzen ditu, eliza eta udalaren inguruan.
Udalerriari nortasuna ematen dioten eraikin nagusiak herriko ekipamenduak bereganatzen dituzte.
Eraikin ikoniko hauek tokiko historian zehar jaiotako beharrak islatzen dituzte, ala nola eliza, lehen eskolak eta paper fabrika.
Kirolak eraikina hasieran aipatutako ardatz horren hasieran kokatzen da, ibaiaren beste aldean.
70 hamarkadan jaiotako herritarren aisialdirako eraikina da, betiko familia baten ekiminez bere bizilagunentzat.



### BETIKOAREN GARRANTZIA

*Pertsona baten nortasunaren sorreran bere inguruak influentzia handia dauka. Toki eta momentu baten partaide izateak oinarri batzuk jartzen dio existentziari.*
*Oinarri hauek egituratzen dituzten euskarri hauen desagerpenak desegonkortasuna eragiten dute.*
*Honen adibide, goian ikusten den irudia: Herriko enparantza nagusiaren lau fatxadetako bat da. Ezkerrean jatorrizko eraikina. Eskuman, aurrekoa bota eta partzelaren limiteari probetxu gehien lortzeko eraikitako etxebizitza multzoa, inguruari eskala ez forman erantzuten ez dion eraikina.*



### NORTASUNIK GABEKO LO–HIRIA

*Hirigunearekiko hurbiltasunak* dependentzia *bat sortzen du, herritarrek* Bilbo*k eskura jartzen dituen ekipamendu eta eginkisun kulturalek bereganatzen dituzte. Herria utsik geratu,* nortasun historiko edo izaera herritarreko espazioak desagertzen dira *eta ohikoak dira horien ordez eraikitzen diren* etxebizitza bloke *handi eta interes gabekoak.*
*Herrigunea* gurutzatzen duten azpiegiturak *asko dira eta hazten jarraitzen dute abiadura handiko trenarentzako eraikitako zubiarekin.*
Konexio hauek herritarrak deskonektatzen dituzte, *bateraezinak diren* puzzle *bat bezala.*
*Herrian zehar sortzen den ibilbide arruntena* tren geltokirantz *doana da, Bilbora 15 minututan eramaten zaituena. Gainontzeko behar ekonomiko sozial eta kulturalek eragiten dituzten mugimenduak* ibaiari bizkarra *ematen diote.*
*Ohikoa da ibaian zeharreko paseoa, kirola edo disfrutatzeko nahiarekin.*
*Biztanleria gutxi ikusten da kaleetan zehar eta geroz eta izaera* independienteago*arekin, herriak ematen duen familia sentipena galtzen den bitartean.*
Gazteentzako erakargarritasunik ez *egoteak kaleetan gazterik ez ikusteak eragiten du, eta gazterik gabeko herria etorikisunik gabeko herria da.*



### PUZLEA

*Piezetan banatuta.*
*Auzoen artean muga zorrotzak.*
*Konexioen trataera zerbitzuala baino ez.*
*Proiektuaren kokapena muga hauengatik guztiz baldintzatuta.*
*Muga hauek mozten dituzten konexioen trataerak eredu bezala funtzionatu behar.*

# MARTIARTU AUZOA
## //06




Proiektua kokatuko den gunea ulertzeko historian zehar bizitako egoera ezberdinak ezagutu behar dira.
Kirolak Eraikina 1970 hamarkada hasieran proposatu eta eraikitzen da. Inguru natural, ibaitik gertu eta BI-625 errrepide berriak ekarriko zituen berrikuntzen ILUSIOarekin. 1978. urtean AP-68 autobidea eraikitzen da, paisaia sikintzen duen ZUBI erraldoi bat eraikiz.
1983. urtean Arrigorriagak bizitako hondamendirik garrantzitsuena gertatu zen, UHOLDEAK, Bilbo inguru osoan hondamenak eragin zuena. Gertakisun hau eraikin asko kaltetu zituen baina "Kirolak" eraikinean sotoa izan ezik gainontzekoa erabilgarri jarraitu zuen.
Hamar urte inguru ostean eraikinak bere ateak itxi egin zituen, JABETZA PRIBATUA zenez gaur egun arte erabili gabe egon da. Herriak berea bezala ulertzen du eraikina, bere erabilera publikogatik eta bere berreskurapena eskatzen du.

'Kirolak' eraikina eta gainontzeko Martiartu auzoa zatitzen duen errepideak gatazka bat sortzen zuen eraikin publikoarekin, irisgarritasuna zailtzen zuelako. Arazoa, 2004an eraiki zen zubiarekin areagotu zen. Zubi berri, estu eta luze honek Nerbioi ibaia, Kirolak eraikinaren eremua eta errepidea altueran igarotzen ditu, eraikina isolatuagoa utziz. Konexio elementua Martiartu auzoa eta herri zentroa lotzen ditu, baina gurutzazen duenarentzat bide beldurgarria da, gauean bereziki.



# HIRIGINTZA SAILKAPEN ETA ERABILERA
//08

Proiketuaren partzelarako etxebizitza eta espazio libreen arteko konbinaketa aurreikusten da udal hirigintza antolamenduan. Proiketuan plangintza honen eraldaketa proposatzen da. Auzo honek, Martiartu, duen sistema onuragarria da proposatzen den proiektuaren gaiarako, hala nola, hotelak, jatetze, etxebizitza eta industria.



Lurzoruaren sailkapena

Hiri lurzorua

Paisaia aletik interes handikoak diren lan-da-guneak

Lurzoruaren erabilerak

*Etxebizitzak*

*Industriala*

*Irakaskuntza*

*Gizarte zerbitzuak*

*Merkataritza, Ostalaritza, Kirola*

*Ur Hornidurarako S.Orok.*

*Landa gunea*

*Espazio libreen S.Orok. (Parke eta lorategiak)*

# MARTIARTU AUZOAREN TOPOGRAFIA

//07



Ibaiaren ardatza

Talud

Ibaiaren eragin lerroa 5m

Ibaiarekiko errespetua

Errepidearen eragina



Limiteen arteko azalera erabilgarria 6000m$^2$

# ERAIKINAREN AURREKARIAK
//09



Ekialde fatxada　　Mendebalde fatxada　　Hego fatxada　　Ipar fatxada

E: 1/500

Partzelaren azalera 1452m2
Eraikinaren azalera (lur kotatik gora) 885 m2
Partzelaren dimentsioak (forma trapezoidala) 36,5m x ±40m
Eraikinaren dimentsioak (lur kotatik gora) 20,5m x 35m
Eraikinaren altuera (lur kotatik gora) 23,86 m2
Solairu kopurua 6 , bat lur kotatik behera (partzela osoaren azalera hartzen duena)
Eraikinaren eraikigarritasun totala 4450 m2




AA'




BB'

## KIROLAK ERAIKINA

43°12'14.0"N 2°53'22.9"W

*Partzela Azalera* 1035 $m^2$

*Garaiera* 24 m kale kotatik gehi sotoa

*Herri zentrora distantzia* 5 minutu

*Izaera publikoa jabetza pribatua*

*Frontoi eta gimnasio erabilera*

*Proiektu data 1970ko Iraila*

*Arkitektoa Luis Maria Lopez de Guereñu*




E: 1/300

# ERAIKINAREN ARGAZKIAK

//10



Arrigorriaga herrian



Ingurua




Estalkia



Lerro bertikalak



Zubia fatxada aurrean



Ibaiarekiko gertutasuna



Komunikazio zailtasuna




Herritarren erabilera



Frontoia goiko solairuan



Ibaiko ibilbidearen paisaiaren parte

# PROIEKTUAREN AZALPENA INGURUAGATIK

//11






PLATAFORMA
*Zubia erakinean integratu*



FATXADA GARDENA
*Barrualdea zeharargiarekin argituko duen fatxada berria*



HANDIPENA
*Eraikina zubira hurbildu*
*Komunikazio bertikal berri eta publikoagoa*



SABAI BERRITUA
*Forma ikonikoa mantendu argi sarrera hobetuz*



ESTALKIA
*Mendebaldean zabaltzen den lautada babestutako enparantzan bihurtu*



ELKAR LANA
*Behar gustiak asetuko duen egitura artikulatua*

# ESTRATEGIA EGITURALA
//12




Eskala 1/200

# PROIEKTUAREN AZALPENA ERAIKINAGATIK
//13



ESTALKIA
*Jatorrizko forman oinarrituta*



FATXADA
*1970ko proiektuaren altxaeraren presentzia berreskuratu*



EGITURA
*Egitura eskeman oinarritu*



# AUZO MAILAKO INTERBENTZIOA

//14



Interbentzioak Martiartu auzoa bitan banatzen duen errepidea eraldatzen du komunikazioa hobetzeko helburuarekin. Horretarako auzo barneko fluxua bide nagusiari gehitzen zaio. Horrela aparkalekuak ardatz nagusian geratzen dira eta etxebizitzen espaloia handitzen da. Bestalde, errailak estutzen dira, lerro berde bat sortzen da bi norabideen artean eta oinezkoentzako kale kota pasalekuak sortzen dira. Modu honetan gurutzaketa eroso eta seguruak lortzen dira.

//01
Sotoa
−4.08




E: 1/150

//02
Behe Oina
+0.68



//03
# Lehen Solairua
+4.08



E: 1/150

//04
# Bigarren Solairua
+6.8



E: 1/150

//06
Hirugarren Solairua
+9.52




E: 1/150

//06
Laugarren Solairua
+13.82




E: 1/150


//07
Sabaia
+25.5
E: 1/150

//08
Hegoalde altxaera



//09

# Iparralde altxaera



//10
Iparralde altxaera






E: 1/150



//11
# Iparralde altxaera






E: 1/150



//AA'

# Ebaketa zeharka



E: 1/150

//BB'

# Luzetara ebaketa







E: 1/150

//CC'

Ebaketa zeharka




E: 1/150

## Eskema egiturala
//X1



## Eraikuntza xehetasuna
//E2



## Eraikuntza xehetasuna
//E3



## Eraikuntza xehetasuna
//E1



### Birgaitze proiektuak Kirolak eraikinaren jatorrizko egitura zaharberritu eta behar berriak asetuko dituen handipenean oinarrituko da.

Zerbitzua eta inguruarekiko konexioak hobetuko dituen proiektuak bost esku-hartzetan banatzen da, guztiak pieza artikulatu bakar bat bezala ulertuz.Xehetasun ebaketa honetan lau parte hartze nabarmentzen dira, mendebaldetik ekialdera irakurriz, eszenatoki bat jasoko duen hegalean dagoen estalkia; frontoia argituko duen sabai berria; oinezkoen komunikazio bertikalak barne hartuko dituen ekialde fatxada; eraikina, kale kota eta zubia konektatuko duen plataforma eraikinera sarrera berria izanik.

Egitura hogei metro zabaleko egur laminatuzko bost habek osatzen dute, korapilo batekin artikulatua eta tirante batez eutsita. Habez habe metalezko habexkak deck motatako estalkia eusten dute.
Euri urak eraikinerantz bideratzen dira non batu eta kanporatzen diren.
Eraikinaren mendebaldean zabaltzen den enparantzari gune estali bat emateko eraikina besarkatzen duen egituratik eskegitako hegal bat sortzen da. Portiko berrien mendebaldean aldika konexio puntu batzuen beharra ikusten da, bai egitura zaharrarekin eta baita portikoen artean ere.

Puntu honetan, hegal pean, egurrezko zutabez zutabe elkar gurutzatzen diren tirante batzuk proiektatzen dira, horien gainean eta azpian egitura zahar eta berrien arteko kontaktu puntuak kokatuz.

Egurrezko egitura berriaren zimentazioa jatorrizko eraikinaren zapatekin bat egiteko zimentazio bateratzea aurreikusten da, zalantza moduan geratuz mikropiloteen beharra egongo den.

Zimentazio lanak errazteko eta egoera zatarraren ondorioz, sotoaren sabaia behera botako da, horrela zorua 0 solairuaren altueran geratuko da. Sotoaren aireztapena hobetzen da eta kota aldaketa plataforma eszenatoki moduan erabiltzea ahalbidetzen du.

Altuera bikoitzeko espazioko mendebalde horman, kanpotik hegala egongo da, baina libre geratzen den goi tartean argi eta aireztapen naturala edukitzeko lehiate jarrai bat edukiko du.

Sabaiaren egitura berria Pratt motatako zertzen bidez garatuko da. Portikoen lerroan zertza bertikalak kokatuko dira, iparraldetik argi zenitala sartzen ahalbidetuz. Haien goiko habean bermatuta eskema berdineko sare horizontal batek argizuloa ahalbidetuko dute, eta horiei hegoalderantz jarraituz inklinatutako zutabetxo batzuk hurrengo zertzaren beheko habean oinarrituko dira.

Euri urak kanpo espazio behe horretan batu eta jatorrizko toki berdinatik ustuko dira, ekialdeko zutabe bikoitietatik behera.
Eskema lau alditan errepikatuko da, hegoaldeko zertza argizulo izaera gabe utzita.

Ekialdeko itxituraren eguzki babesa barruko espazioaren arabera landaredi igokariak edo lamak izango ditu. Landaredia barrutik edo kanpotik erraztasunez mantentze lanak egiteko aukera badago, eta lamak perimetroan kokatutako altueran dauden lehiateak babesteko.

Eraikinaren zoruen beharren arabera isolamendu eta zoru erradiatzaile moduko instalazioak edukitzeko garatuko dira eta begibistan geratuko da, akaberaren arabera, jatorrizko hormigoizko barru espazio batean zauden edo berrikuntzako egurrezko zonaldeetan zauden.

Ekialdeko handipenaren zutabea sotoaren hormarekin egingo du topa, partzela limitearekin. Lerro horretan, sotoko karga hormarekin konektatua sotoaren altuerako lurperatutako bost zutabe eraikiko dira, portikatuen egurrezko zutabeek jasango duten kargak lurrera bideratzeko.

Ekialdeko jatorrizko fatxadak berrikuntza baten beharra dauka, bere itxura gogor, itxi eta errepikarkorrak erabilera pribatuko eraikina dela ulertarazten digu.

Gainera, 2004an, herria eta Martiartu auzoa konektatzeko eraiki zen zubiak ez dio mesederik egiten.

Birgaitze proiektuak zubiarekin gatazka batean sartu beharrean, zubia eraikinaren parte izatera pasatu nahi du, integratuz elkarbizitza bat hasteko.

Horretarako bi estrategia erabiltzen dira, lehena eraikina zubira hurbildu, fatxadaren handipen bat eginez. Handipen honek solairu guztiak konektatzen dituen eskailerak jasoko ditu, hegoaldean kokatuta mugikortasun azkarreko eskailera txiki eta praktikoak, eta solairuen distribuzioari erantzuten dion fluxu gehiagoko beste batzuk. Pieza berri honek trantsizio espazio eta egote toki batzuk antolatzen ditu, horien arabera itxitura bat edo bestea izanik.

Altxaera berriak izaera publikoa islatzen du, bai eta landare igokariek irudi organikoago bat eman, inguru naturalarekin bat datorrena.

Eraikina eta zutabea konektatuko duten plataformak bere barne hartuko du Kirolak eraikinerako sarrera nagusia, plataforma pean sortze den espazioan, hegoaldeko erdia kanpo espazio estali modura, plataforma eta zoru kota konektatzen duten kanpo eskailera batekin eta ipar erdi itxi batekin.

Instalazio eskema
//X2

Euri urak




Euri urak (Bero/Hotz)



Klimatizazioa





Suteak



Elektrizitatea



Instalazioen eskema



KIROLAK ERAIKINAREN SARRERA




*Martiartu auzoarekin kale kotan konektatua eta zubira igoera*

# FRONTOIA






*Esktalki eta fatxadak eskema berdina hegoalderantz begiratzean*






*Zertzak dira nagusi iparrera begiratzean*

# KANPO ESPAZIOAK



*Laugarren solairuko terraza inguru naturalean integratuta*



*Mendebaldeko enparantza estaliaren izaera ireki eta babestua*